BESTELAKO XEDAPENAK

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

4970

41/2011 EBAZPENA, urriaren 10ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Eusko Jaurlaritzak Ebazpen Batzordean izango duen ordezkaria izendatzeko Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako Erabakia argitara dadila xedatzen duena.

Ebazpen Batzordea arautzen duen ekainaren 30eko 13/1994 Legearen 7.2 artikuluan eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 271/2008 Dekretuaren 11.2b) artikuluan xedatutakoarekin bat, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak erabakitakoa betez, hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Eusko Jaurlaritzak Ebazpen Batzordean izango duen ordezkaria izendatzeko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko urriaren 7an egindako bilkuran hartutako Erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Ebazpen honen eranskinean dator erabakia.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 10a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
M.ª JESÚS CARMEN SAN JOSÉ LÓPEZ.

ERANSKINA, JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAK URRIAREN 10EAN EMANDAKO 41/2011 EBAZPENARENA

ERABAKIA, EUSKO JAURLARITZAK EBAZPEN BATZORDEAN IZANGO DUEN ORDEZKARIA IZENDATZEKOA

Ebazpen Batzordea arautzen duen ekainaren 30eko 13/1994 Legearen 7.1, 14.1 eta 19.3 artikuluetan xedatutakoari jarraituz, 7.1 artikuluan aipatzen den argibidezko iritzia Eusko Legebiltzarrari eskatuta eta Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak proposatuta, hona hemen Jaurlaritzaren Kontseiluak hartu duen

ERABAKIA

Asunta de la Herrán Unceta-Barrenechea andrea Eusko Jaurlaritzaren ordezkari izendatzea Ebazpen Batzorderako, hain zuzen ere Arabako Lurralde Sekziorako.